

Luhartza

ERRIBERETAKO izurrite handienetakoa da luhartza (*Gryllotalpa gryllotalpa*). Ondo latina jarri zioten izena: “gryllo” kilkerra eta “talpa” satorra. Bikoitza da luhartza: era berean kilker handi bat eta sator tiki bat. Euskaraz izen mordoa duela egingo nuke; nik han eta hemen beste bi ikasi ditut: Ziortza-Bolibarren “lur-txakurra” eta Aramaioko Oletan “txir-txir satorra”. Jean Baptiste Althabek 1910eko Euskaltzaleen Biltzarrari helarazi zizkion Zube-roako 357 hitzen artean “falphak” azaltzen da. Honela jaso zuen “biltzarreko eskribari Aphez Martin Landerreche” sinatzen duenak: “*Falphak: Lurpeko, luharga, luhartz, landaregurijaleak*”. Beste bi hitz, beraz, luhartza esateko: falpha eta luharga. Umami oparoak bere hiztegi mardulean izen mordoa jaso du, tartean dotore askok: arrod, arrogi, arroi, arrubi,

arrubio, arrule-arrubio, arruge, lugartz, lur-txakur, erlui, har-txakur, hogeita lauorenko, hogeita lau orduko, karramarruga, pio-pio, laur zangotako, otxabarri, otxarrabi, segarora, sikilikitu,



Luhartza, *Gryllotalpa gryllotalpa*.

arlui, zalmiroi, xabiroi, xaubiroi. Izen batzuk zein baino zein politagoak iruditu zaizkit. Horien nondik norakoa arrazoitzeko ezagut dezagun luhartza.

Kilkerraren antza du, baina handixeagoa da (4-5 zentimetro). Gorri aireko gorputza du, eta

karramarroek dituzten antzeko haginak. Hagin horiek bere bizimoduaren eboluzioaren adierazle ederrak dira: bazkaren bila (zizare, har, txindurri...) lurpean galeriak egiten ditu, satorren antzera, eta

landareen sustraiak moztu. Landareak oso-osorik ere epaitu ditzake, ipurditik. Azaltzen den tokietan ez da gauza onik; sustraiak edo landareak ebakiz kalte latzak egiten ditu. Lur fresko, arin eta batez ere harroetan bizi da. Udaberriko gau epeletan arraren kantua entzun daiteke, zatarenaren tankerakoa omen. Lurpeko galerietan, aparteko txokak eraikitzen ditu, kantuari doinu berezia eransteko, emeen erakargarri.

Trikua, satorra, satagina, arratoia, azeria, araba-zozoa, ipar-belea eta harrapariak ditu arerio. Asia aldean, jendeak ere jaten omen du. Eta zenbait arrainen arrantzan beita preziatua da. ■

Sagarra zuri



Kanadatik dator berria: moztu eta oxidatzen ez diren, hau da, gorritzen ez diren sagarrak sortu ditu Okanagan Specialty Fruits enpresak. Bi aldaera berri dira: Arctic Golden eta Arctic Granny. Sagarraren bera-
ren gene batzuk birtxertatuz, haizea ukitzean mamia gorritzen duen entzima ez sortzea lortu dute.

Sagarra xerrak eginda saltzen duten enpresentzat pagotxa izango da, orain arteko kontserbatzailerik ez duela jarriko diote sagar zatiak daramatzan bilgarriari. Transgenikoa dela ez dute jarriko, ordea.

Patatarekin ere ari dira; agidanean lortua dute hau-tsitza ere mamia iluntzen ez zaion aldaeraren bat. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

